

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



32. Informazio Buletina
2009ko Martxo





NABARMENDU BEHARREKOA

Konfiantza indartzea eta finantza egonkortasuna sustatzea, batasunaren lehentasunak

Martxoaren 19 eta 20ko Europako Kontseiluak Europar Batasunak finantza- eta ekonomia-krisiari aurre egiteko duen gaitasunean duen konfiantza adierazi du. Kide diren estatuek hartutako neurriek finantza kolapsoa saihestu dute. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa izan daiteke neurri berriak hartzea kreditu-merkatuen funtzionamendua berrezartzeko eta kreditu-fluxua ekonomia errealerara errazteko, besteen artean, banku-aktibo toxikoez arduratzea, esaterako.

Era berean, krisiaren hedadurak eta azpiko kausek beharrezkoa dela erakusten dute kautelazko arauak, krisia kudeatzeko mekanismoak eta gainbegiratze markoa estatu-, Europa- eta mundu-mailan indartzea.

Ekonomian efektu positiboak antzemateko denbora beharko den arren, aurrekontuen esfortzuaren hedadurak (EBko BPGd-aren % 3,3 inguru, hau da, 400.000 milioi euro baino gehiago) inbertsio berriak sortuko ditu, eskaera sustatuko du, enplegua sortuko du eta Europar Batasuna karbono isuri urriko ekonomiara igarotzen lagunduko du.

Egungo krisian, berritutako Lisboako Estrategiak –egungo zuzentarau integratuak barne– hazkundea eta enplegua modu iraunkorrean sustatzeko marko eraginkorra izaten jarraitzen du.

Informazio gehiago:

http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/106815.pdf

Gipuzkoako langabezia tasa Europar Batasuneko tasara gerturaten ari da pixkanaka

2009ko lehen hiruhilekoari dagokion Eustaten BJA galdeketak Gipuzkoako langabezia-tasa % 6,5 dela kalkulatu du eta azken hiruhilekoan aurrerapen nabaria izan duela (2008ko laugarren hiruhilekoan, % 3,9koa).

Langabezia nabarmen hazi den (8.500 pertsona gehiago langabezian, guztira 21.300) arren, langabezia-tasa oraindik ere EB-27ko batez bestekoa baino baxuagoa da (% 7,9 aurtengo otsailean). Azken hilabeteetan, hala ere, nabarmen murriztu da aldea (aurreko urteko azken hiruhilekoan langabezia-tasa % 7,6 zen EB-27an).

Gipuzkoako langabezia-tasa EBko kide diren 14 estatuetakoa baino txikiagoa da eta 9 estatuetakoa baino altuagoa (ez dago gainerako 4 estatuei buruzko informazio eguneraturik). Europar langabezia-tasa txikiena duten estatuak hauek dira: Holanda, Austria eta Zipre.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0000200/tbl0000209_e.html



Klima aldaketara egokitzeari buruzko liburu zuria

Europako Batzordeak Liburu Zuria aurkeztu du. Bertan, klima-aldaketaren aurrean Europar Batasunaren erresistentzia areagotzeko hartu beharreko neurriak azaltzen dira.

Datozen 50 urteetan, klima-aldaketak eragin sakonak izan ditzake sektore ekonomiko garrantzitsuetan, hala nola nekazaritza, energia, garraioa, ekosistemak, turismoa eta osasuna.

Liburu Zuriak klima-aldaketaren inpaktuei aurre egiteko prestatzeko markoa eskaintzen die Europar Batasunari eta haren kide diren estatuei. Estrategiaren lehen fasea 2012 arte garatuko da eta 2013tik aurrera EB egokitzeko estrategia globala prestatzeko oinarriak finkatuko ditu. Klima-aldaketa eta egokitzapen neurriak hobeto ezagutzea eta egokitzapena EBko politika nagusietan nola integratu jakitea izango du xede.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/environment/climat/adaptation/pdf/com_2009_147_en.pdf





KOHESIO-POLITIKA

Europako eskualde eta hirien goi bilera

2009ko martxoaren 5 eta 6an Pragan izandako Europako Eskualde eta Hirien Goi-bileran Eskualdeetako Batzordeko kideek eta eskualdeetako eta tokiko erakundeetako ordezkari politikoei haien ondorioetan honakoa nabarmendu zuten: eskualdeko eta tokiko erakundeen eginkizuna erabakigarria dela aldaketa ekonomikoaren, ekologikoaren eta sozialaren eragile gisa, lankidetzako ekimen berritzaile eta sustapen ekimenak aurrera eramateko, haiek ezinbestekoak baitira lehiakortasun ekonomikorako eta herritarren bizi-kalitaterako.

Horri dagokionez, eskualdeen arteko kohesioari buruzko Liburu Zuria egiteko eskatu diote Europako Batzordeari. Liburuko definizioek, helburuek eta finantzaketak eskualdeen arteko ekitate eta solidaritatea bermatu behar dute, eta klima, globalizazioaren eraginak eta erronka demografikoa modu eraginkorrean zaintzen lagundu behar du liburuak.

Informazio gehiago (ingeleza):

<http://www.cor.europa.eu/pages/EventTemplate.aspx?view=detail&id=dfa9f96b-969b-45da-9d32-4c112df0d48b>

2007-2013 diruz lagundutako gastuen laburpen gida

Europar Batasuneko Eskualde-mailako Politikaren Zuzendaritza Nagusiak laburpen-gida argitaratu du. 2007-2013 programazio-aldirako Egitura Funtseko eta Kohesio Funtseko diruz lagundutako gastuei buruzko arauak ematen ditu laburpen-gidak.

Bertan, hautagarritasunari buruzko alor hauek lantzen dira: kokapen geografikoa, esku-hartze eremua, kostuaren kategoriak, denboraldia eta finantza kudeaketa.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/presenta/eligibility/eligibility_2009_en.pdf

Nazioz haraindiko atlantikoko eremua programa: proposamen deialdia

Apirilaren 6an hasten da Atlantikoko Eremua Nazioz Haraindiko Lankidetzaren Programarako hautagaitza aurkezteko bigarren deialdia. Ekainaren 5ean amaitzen da epea.

Hautagaitza-deialdiak lau lehentasun hauek hartzen ditu kontuan: nazioz haraindiko enpresa-sareak eta berrikuntza sustatzea; itsasoko eta itsasertzeko ingurumenaren segurtasuna eta iraunkortasuna babestea eta hobetzea; irisgarritasuna eta barne-konexioak hobetzea, eta tokiko eta eskualdeko nazioz haraindiko garapen iraunkorreko sinergiak sustatzea.

EGEFk 26 milioi euro eman ditu deialdi horretarako. EGEFren esku-hartze indizeak ez du proiektuko kostu hautagarrien % 65 gaindituko.

Informazio gehiago:

[http://www.dgfc.sgpg.meh.es/aplweb/pdf/DescargasFondosComunitarios/\(1346\)Final_ES_2nd_call_for_proposals_announcement_30_03_09.pdf](http://www.dgfc.sgpg.meh.es/aplweb/pdf/DescargasFondosComunitarios/(1346)Final_ES_2nd_call_for_proposals_announcement_30_03_09.pdf)



KOMUNITATEKO POLITIKAK

2008 Europar Batasunaren txosten orokorra

Europako Batzordeak Europar Batasunaren 2008ko jarduerari buruz argitaratutako txosten orokorrak nabarmentzen dituen gertaera nagusiak hauek dira: nazioarteko finantza-krisia, klima-aldaketa eta nazioarteko hainbat gatazka. Horiek Europaren erreakzio azkarra eta eraginkorra bultzatu dute eta ondorioz, Europar Batasuna munduko ikuspegi politikoan lehenengo postuan kokatu da.

Lisboako Itunaren berrespen-prozesua, udaberrian Irlandan egindako erreferendumean "ezezkoak" irabazi ondoren, mantsotu egin zen, eta abenduan, Europako Kontseiluarekin berriro ere piztu zen. Urteko gertakari instituzionala izan da.

Txosten orokorrak Europar Batasuneko erakunde eta organoek egindako lana jasotzen du eta haren xedea 2008an Europar Batasuneko bizitzaren ezaugarri izan denari eta gertakari nabarmenei buruzko ikuspegi globala ematea da.

Batzordeak agintaldiaren hasieran definitutako lau helburu estrategikoen inguruan egituratzen da txostena: oparotasuna, solidaritatea, segurtasuna eta Batasunaren eginkizuna munduan. Bestalde, beste hiru kapitulutan gai hauek lantzen dira: erakunde eta organoetako bitzta, aurrekontuak eta finantza jarduerak, eta komunitateko jardueren marko politiko eta ekonomiko orokorra.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/generalreport/es/2008/rg0.htm>



Unibertsitate eta enpresen arteko elkarrizketarako foroa

Europako Batzordearen Jakinarazpenak, “Unibertsitateen modernizaziorako elkarte berria: unibertsitate eta enpresen arteko elkarrizketarako EBko foroa”, honako hau nabarmentzen du: unibertsitateak, haien helburu hirukoitza dela eta –mailarik altueneko hezkuntza hornitzaileak, ikerketa aurreratua eta puntako berrikuntza–, Europako ezagutzaren triangeluaren muinean daudela. Hori horrela, mundu-mailan ezagutzaren ekonomia eta gizarterik aurreratuena bilakatzeke Europako nahiaren motore nagusiak izatera hel daitezke.

Oinarri horretatik abiatuta, duela urtebete Batzordeak Unibertsitatea eta Enpresa-foroa sustatu zuen, aipatutako bi komunitateen arteko elkarrizketarako Europako plataforma gisa. Orduz geroztik hiru tailer tematiko eta osoko bilkura egin dira. Foro horri esker ondorioztatu da ekonomien lehiakortasuna eskulan kualifikatu eta ekintzailearen baliagarritasunaren mendekoa dela geroz eta gehiago. Era berean, foroan parte hartutako enpresek jakinarazi dute adostasun falta dagoela unibertsitateko lizentziatuen gaitasunen eta haiek enpresari moduan finkatzen dituzten prestakuntzen artean.

Hala ere, bat datoz ikasketa-planetan eta ikaskuntza metodoetan egin beharreko aldaketa globalaren beharri dagokionez, baita honako puntu hauei dagokionez ere: zeharkako gaitasunak, gaitasun besterengarriak, eta ekonomiako eta teknologiako oinarritzko kontzeptuak sartzea; ikaskuntzaren eta gaitasunen ebaluaziora zuzendutako azterketa metodo hobekak; onarpen-profil eta ikaskuntzaren ikuspegi aniztasun handiagoa ezohiko inguruneetatik etorritako talentua antzemateko, ikasten berriro hasten diren helduak barne; hezkuntza eta ikerketako agenden diziplinarteko eta diziplina barruko izaera handiagoa.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzari bultzada emateko une egokia dela nabarmentzen dute. Atzeraldi ekonomikoaren garaian, ikasketak amaitzen dituzten ikasleei zailagoa zaie lana aurkitzea eta enpresek presio lehiakor handiagoa jasaten dute. Orduan, unibertsitatearen eta enpresen arteko lankidetzari gehitutako balio ekonomiko eta sozialak aipatu lankidetzaren lehentasun-izaera areagotu ere egin behar luke.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0158:FIN:ES:PDF>

I+G estrategia eta IKT-entzako berrikuntza

Europako Batzordearen Jakinarazpenak dio Europak munduko ekonomiarik handiena izanik eta IKTen munduko merkatuko kuotarik altuena izanik, bere enpresa, administrazio publiko, I+G zentro eta unibertsitateek IKTen garapenaren buruzagitza hartzeko, alor horretako berrikuntzan gehiago inbertitzeko eta jarduera ekonomiko berriak sortzeko nahia izan dezakeela.

2020ko horizonterako proposamen hauek egin ditu: IKTetan I+Gren inbertsio publikoen eta pribatuen zenbatekoa bikoiztea, baita hazkunde handiko IKTen ETEetako kapital arriskutsuaren inbertsio kopurua bikoiztea ere; IKTetako merkataritza-aurreko kontratazio publikoaren erabilera hirukoiztea; IKTen eremuan mundu-mailako bost polo osagarri sortzea; IKTetan berritzaileak diren jarduera ekonomikoak garatzea; horrela, enpresek IKTen I+Gn egiten duten gastu guztiaren herena azken bi hamarkadetan sortutako enpresena izango da eta Europako IKTen sektorea IKTen munduko merkatuaren kuotaren baliokidearen hornitzailea izango da.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0116:FIN:ES:PDF>



E-LIBURUTEGIA

Euskadiko eta Europako gazteak

Gazteriaren Euskal Behatokiak "Gazteen adierazleak 2008: EAEren eta Europar Batasunaren arteko alderaketa" dokumentua argitaratu du. Dokumentuak Euskadiko eta Europako gazteen errealtate sozio-demografikoa eta lan-egoera deskribatu eta sakontzen ditu.

Liburua gaika banatutako zortzi kapitulutun egituratuta dago: biztanleriaren bilakaera eta dentsitatea; adin taldeen arteko harremana; jaiotza-tasa, amatasuna eta ugalkortasuna; egoera zibila; bizi-itxaropena eta hilkortasun-tasa; migrazio-mugimenduak; jardueretik lotura.

Kapitulu bakoitzean datu estatistikoez gain, azalpen-faktoreei buruzko aurkezpen global eta teorikoa eta fenomeno bakoitzeko azken joerak datoz. Amaieran, ondorioak azaltzen dira eta bertan alderaketa-azterketaren prozesutik bildutako emaitza esanguratsuenak jasotzen dira.

Informazio gehiago:

http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7657/eu/contenidos/noticia/gazteen_adierazleak_2008/eu_adieraz/adjuntos/portada_indicadores_2008.pdf

Europako bizi kalitatea

Europar Batasuneko Eurofound agentziak Europako bizi-kalitateari buruzko txostena argitaratu du. Galdeketa zabalean oinarritutako txosten horren arabera, osasuna, familia eta gizartearen kalitatea dira Europako bizi-kalitatearen funtsak.

Galdeketa arabera, Europako biztanleria orokorrean gustura dago duen bizi-kalitatearekin, bizi egokiaren eta zorientasun-mailaren arteko aldeak nabarmenak diren arren, batez ere, kide diren estatu berrien artean. Zorientasun-adierazlea emozionalagoa denez, bizi-mailaren eragin gutxiago jasaten du. Egokitasun-adierazleak, aldiz, baldintza sozio-ekonomikoen eragin handiagoa jasaten du.

Diru-sarrera handienak dituzten pertsonak, osasun ona, ondo ordaindutako lana eta ikasketamaila altua dutenak dira asebetenak, zorientasunak eta errealizatuenak. Gauza bera adierazten dute bikotearekin bizi direnek eta haurrak dituztenek ere.

Bostetik lauk dio osasuna bizi-kalitatea zehazteko oso garrantzitsua dela eta hirutik bik baino gehiagok dio oso osasun ona edo ona duela. Bigarren, familiako bizitza ere garrantzitsua da bizi-kalitatea zehaztean: hamarretik zazpiren ustetan, familiako bizitza oso garrantzitsua da bizi-kalitaterako.

Gizartean antzemandako kalitatea (besteekiko konfiantza, erakundeekiko konfiantza, talde sozialen arteko tentsioak...) da bizi-kalitatearen dimentsio anitzeko kontzeptuaren oinarritzko beste elementua bat.

Informazio gehiago (laburpena):

<http://www.eurofound.europa.eu/pubdocs/2008/52/es/1/EF0852ES.pdf>

(Txostena ingelesez)

<http://www.eurofound.europa.eu/pubdocs/2009/02/en/1/EF0902EN.pdf>



Energiaren egoera

Eurostatek egindako Europar Batasuneko eta kide diren estatu bakoitzeko energia-egoeraren ezaugarriari buruzko laburpen txostena.

Egoera bost atal nagusitan egituratzen da: Batasuneko politika energetikoa, joera energetikoa, prezioak eta zergak, estatistika berriak eta kide diren estatu guztiei dagozkien energia-ezaugarrien aurkezpena.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page?_pageid=1073,46587259&_dad=portal&_schema=PORTAL&p_product_code=KS-GH-09-001

Txostenak: zerbitzuak berritzeko Europako estrategia

Europako Batzordeko Enpresaren eta Industriaren Zuzendaritza Nagusiak antolatuta, martxoaren 19an eta 20an laneko bilera egin zen Malmoen. Bileraren xedea berrikuntzako clusterren eginkizuna aztertzea zen, ezagutzako zerbitzu intentsiboak bezalako sektore berriak indartzeko, eskualdeetako ekosistemak sustatzeko eta industria sortzaileen eta haiei lotutako zerbitzuen potentziala sendotzeko. Hori guztia Europako ekonomiaren sustapenaren barruan.

Hori horrela, bat etorri ziren Batasuna etorkizunean lehiakorra izan dadin industria sortzaileek duten potentzialari dagokionez, Europako kultura aniztasun eta aberastasunean oinarrituta.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://www.europe-innova.org/index.jsp>



ADIERAZLEAK

2008 Gipuzkoako kanpo merkataritza eta Europar Batasuna

Gipuzkoako esportazioak 6.124 milioi euroraino hazi ziren 2008an, aurreko urtean baino % 8 gehiago. Esportazio horien % 66 Europar Batasuneko herrialdeetara egin zen; aurreko urtean baino 2 puntu gutxiago.

Gipuzkoako dinamismo esportatzailea EB-27koa baino handiagoa izan zen, kide diren estatueta esportazio guztiak (bai Batasuneko beste estatueta, bai kanpora) % 3,1 areagotu ziren.

Kide diren estatu berriak izan ziren esportazio-fluxua gehien areagotu zutenak: Lituania (% 28), Errumania eta Eslovakia (% 14), Bulgaria eta Letonia (% 13), Polonia (% 12) eta Txekiar Errepublikak (% 11). Kide diren gainerako 20 estatuak Gipuzkoak baino gutxiago areagotu zuten kanpo-salmenta.

Batasuneko estatuen esportazioen % 67 Batasuneko beste estatueta zuzendu zen, ratioa Gipuzkoakoaren oso antzekoa da.

Bestalde, Gipuzkoako inportazioak % 2,6 jaitsi ziren eta Europar Batasunekoak, aldiz, % 4 areagotu.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0002400/tbl0002437_e.html

Osasuna, Europar Batasunean

Europako biztanleen bi herenek ontzat edo oso ontzat ematen dute haien osasun egoera. Lautik batek, aldiz, erdipurdikotzat jotzen du eta hamarretik batek txartzat edo oso txartzat.

EB-25ean Erresuma Batua, Zipre, Holanda eta Danimarka nabarmentzen dira biztanleek duten osasunaren pertzepzio onagatik. Letonia, Portugal eta Lituania, berriz, kontrako pertzepzioagatik nabarmentzen dira.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Galdeketako datuek adierazten dute Gipuzkoan lautik hiruk bere osasuna ona edo oso ona dela uste duela. Ehuneko hori osasunari buruzko pertzepzio hobea duten Europako herrialdeetakoaren antzekoa da.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-09-024/EN/KS-SF-09-024-EN.PDF